

# Buletina



07

2024ko urtarrila

Pedagogia Pentsioetan

JARDUNBIDE EGOKIAK

DEMOGRAFIA

Prestazioak

Gizarte Aurreikuspeneko Sistemak

Kontingentziak

Bazkideak

Erakundeak

Txostenak eta azterlanak

Inbertsioak

Rankingak

**Euskal Autonomia  
Erkidegoko  
gizarte-aurreikuspen  
osagarriaren  
behatokia**



EKONOMIA ETA OGASUN  
SAILA  
DEPARTAMENTO DE ECONOMÍA  
Y HACIENDA





### BGAE-**ei BURUZKO LEHEN LEGEAREN 40. URTEURRENA**

25/1983 Legea, urriaren 27koa, Borondatezko  
Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeei buruzkoa

### BGAE-**ei buruzko lehen Legearen 40. urteurrena**

BGAE-**ei buruzko lehen Legearen 40. urteurrena ospatu da, Estatuan aitzindaria den araua, gizarte-aurreikuspen osagarriaren sistema propioa garatzeko oinarriak ezarri zituen. Urteurren-ekitaldian, lehendakariak nabarmendu zuen Euskadik bere lidergoa erakutsi zuela, etorkizunera begirako bisio itzelarekin, eta, aldi berean, Eusko Jauriaritzak etorkizunera begira jarraitzen duela, hobekuntza-ekimen berriak garatuz, hala nola lehentasunezko BGAE-ak bultzatuko dituen dekretu berria, Araban eta Bizkaian sistema horien balizko artikulazioa eta Merkataritza Ganberek sinatutako lankidetzaz-hitzarmena, langile autonomoei zuzendutako (kooperatibistak ez direnak) gizarte-aurreikuspeneko sistema berri bat ezartzeko, besteak beste.**


[Informazio gehiago](#)



### Eusko Jauriaritzaren eta Merkataritza Ganberen arteko lankidetzaz-hitzarmena sinatu da, autonomoentzako aurreikuspen-plan bat sortzeko

Eusko Jauriaritzak eta Merkataritza Ganberak (Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa) lankidetzaz-hitzarmena sinatu dute norberaren konturako langileentzako aurreikuspen-sistema bat sortzeko lehentasunezko enpleguko BGAE baten bidez. Helburua da kolektibo horrentzako gizarte-aurreikuspen eraginkor bat bultzatzea, kudeaketa-gastuetan doituta, langileen barneratze goiztiarrek eta pizgarri fiskalekin, prestazioak errenta moduan kobratzen badira. Ekarpnaldizkakoak edo, kasu jakin batzuetan, ezohikoak izatea planteatzen da. Eusko Jauriaritzak sistema horren ezarpena erraztuko du, abian jartzeko eta komunikatzeko gastuetan lagunduz.


[Informazio gehiago](#)



### Euskadiko pentsioen sistema publikoaren 2023ko balantzea

Geuk egindako infografia honek Euskadiko pentsioen sistema publikoari buruzko adierazle nagusiak jasotzen ditu. 2023aren amaieran, EAEko pentsiodunak 520.083 izan dira, 2022an baino ia 4.000 gehiago (+3.781). Horrela, pentsiodun bakoitzeko bi langile baino gutxiago daude (1,94), baina ratio hori zertxobait hobetu da urte arteko tasan, enpleguan izandako dinamismoa dela eta. Batez besteko erretiro-pentsioa 1.688 €-koa da, Estatuko zifrarik handiena, eta 1.770 €-koa erretiro-pentsio berrietarako. Horrela, erretiro-pentsioa batez beste azken soldataren % 75,1 da, eta pentsioen gastua ia hirukoiztu egin da azken bi hamarkadetan Euskadin.

[Informazio gehiago](#)



### Espainiako pentsio-sistema, Europako jasangarritasun gutxien duenetako bat

Mercer-en *Global Pension Index* edizio berria (2023), munduko 47 pentsio-sistema ebaluatzen dituena, hiru indize partzial (egokitasuna, osotasuna eta jasangarritasuna) batzen dituen adierazle global batetik abiatuta. Espainia rankingaren erdialdean mantentzen da (26. postua), jasangarritasunean duen posizioa dela eta (44. postua), nahiz eta egokitasunari (10. postua) eta osotasunari (15. postua) dagokionez emaitza hobea izan. Gomendioak: 1) enplegu-planen estaldura handitzea, 2) seniorren enplegu-tasa hobetzea eta 3) zaugarritasun egoeran dauden adinekoen gutxieneko prestazioa handitzea. Herbehereak, Islandia eta Danimarka dira lider.

[Informazio gehiago](#)




### Espainiako enpresetan gizarte-aurreikuspen osagarria bultzatzeko erronka

Espainiako pentsioen egoerari buruzko VII. azterlanak (KPMG) gizarte-aurreikuspen osagarriaren sisteman egindako azken erreformen inpaktua jartzen du arreta. Sistema horren garapen-maila aztertzen du, baita aurreikuspen-planen ezaugarriak ere, Espainiako enpresei egindako sektore anitzeko kontsulta batetik abiatuta. Emaitzek erakusten dutenez, kontsultatutako enpresen % 28k baino ez du aurreikuspen plan bat, eta gehienak ekarpen definitukoak eta langile guztiei irekiak dira du, soldataren % 3,83ko batez besteko ekarpenarekin. Sistema hori garatzeko proposatutako neurriak: i) zerga-pizgarriak, ii) komunikazioa, informazioa eta gardentasuna, eta iii) negoziazio kolektiboaren bidez sistema sektorialak ezartzea.

[Informazio gehiago](#)



Pensions at a Glance 2023 OECD AND G20 INDICATORS



"Pensions at a Glance 2023" txostena argitaratu da

ELGAK Pensions at a glance 2023 argitaratu du, ELGAko herrialdeek pentsioen arloan egindako erreforma nagusiak jasotzen dituen bi urteko txostena. Aurtengo edizioak kapitulu espezifiko bat jasotzen du, enplegu arriskutsu edo neketsuetan lan egiten duten pertsonen pentsioan oinarritua, eta, bertan, egungo arau-esparrua, azkenaldiko joerak eta kolektibo horrentzako erretiro aurreratuko betekizunen diseinua eta funtzionamendua jasotzen dira, zahartzeak pentsio-sistemen gainean duen presioa kontuan hartuta. Halaber, edizio honek ELGaren eta G20ko pentsioen gaineko funtsezko adierazleak eguneratzen ditu, pentsio-sistemen diseinuari, pentsio-eskubideei, testuinguru demografiko eta ekonomikoari, adinekoen diru-sarrerei eta pobrezia-tasari eta pentsio pribatuen sistemai dagokienez.

Informazio gehiago

Inflazioa eta pentsioen errebalorizazio-mekanismoak

Prezioak dira pentsioak errebalorizatzeko gehien erabiltzen den erreferentzia-adierazlea Europako herrialdeen artean. Adierazle horrek pentsiodunen kolektibo erosteko ahalmenaren balizko galeratik babesten badu ere, eragin handia du kostuetan, batez ere inflazio handiko egoera batean. Testuinguru horretan, zenbait herrialde aldatetarako erretiro pentsioen errebalorizazio-sisteman. Erantsitako artikulua Europako erreferentzia-herrialdeetarako honako informazioa jasotzen du: pentsioak indexatzeko aplikatutako mekanismoak, errebalorizazioaren maiztasuna, erabiltzeko erreferentzia-aldia eta errebalorizazioa gauzatzeko unea, besteak beste.

Informazio gehiago

Erretiroaren Europako Astea ospatu da

Erretiroaren Europako Astearen ("European Retirement Week") hirugarren edizioan, 2023ko azaroaren 27tik abenduaren 1era bitartean egindakoan, pentsioen arloko Europako erakunde nagusiek parte hartu dute. "Pentsioen esparruan Europak dituen eronkei irtenbideak ematea" lelopean, parte hartu duten erakundeek hainbat gomendio aurkeztu dituzte 2024-2029 Europako agendarako, pentsioen egokitzapena indartzeko. Gainera, ekitaldiaren webgunean, antolatutako jardunaldien bideoak daude eskuragarri, besteak beste: 2023ko pentsioei buruzko inkesta paneuroparraren aurkezpena eta "Etorkizunerako prest dagoen Europa: biztanleriaren zahartzean inbertitzea" webinarra.

Informazio gehiago ; Jardunaldiko bideoak

Herbehereek aldizkako inkestak egingo dituzte pentsio-planetan parte hartzen dutenen arrisku-lehentasunei buruz

Herbehereetako pentsio-sistema berriak ezartzen du ekarpen definituko pentsio-planek partaideen arrisku-profilen oinarritu beharko dutela beren inbertsio-politika. Horretarako, arrisku-lehentasanaren inkesta bat egin beharko duite partaideen artean, gutxienez bost urtean behin. Bi neurraketa-metodo daude: neurraketa kualitatiboa (tradizionala) eta kuantitatiboa. Metodo kualitatiboan, partaideei beren inbertsio-egagutzei buruz galdetzen zaie, eta zenbateraino dauden prest arriskuak hartzeko. Metodo kuantitatiboan, partaideek arrisku-maila desberdineko aukeren artean erabaki behar dute eta, beren aukeren arabera, etorkizuneko prestazioan izango duten finantza-ondorioei buruzko informazioa lortzen dute.

Informazio gehiago




Table with 2 columns: Herbehereetako pentsio-sistema berriak ezartzen du ekarpen definituko pentsio-planetan parte hartzen dutenen arrisku-lehentasunei buruz; Paises Bajos realizará encuestas periódicas sobre las preferencias de riesgo entre los participantes de planes de pensiones

Buletin gehiago >> Informazio gehiago

Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Aurreikuspen Osagarriaren Behatokia